

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 536/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onestea Eva Aisa Andino andrea izendatzea behin-behineko langileek betetzekoa den Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostua betetzeko**

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Eva Aisa Andino izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.008).

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko abuztuaren 6tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA DEL VAL SANCHO**